

22E/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 27koa, Herriarrekiko Harremanetako kontseilariak emana, gastua onartzeko 2020rako Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen arteko Lankidetzaz Hitzarmena egiteko.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-3592-2020-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herriarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskararen Sustapen eta Plangintzaren Zerbitzua
Euskararen sustapenaren Atala
Tfnoa.: 848 426053
Helbidea: Yanguas y Miranda 27, 1.a - 31003 Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikulua xedatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak esleitzen ahal dituela diru-laguntzak izendunak, baldin eta lortu nahi den helburua eta diru kantitatea berariazko onuradunari zehazten bazaizkio.

Nafarroako Parlamentuak, 2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen bidez, "Euskal Wikilarien Kultura Elkartearikiko hitzarmena" izeneko B30002 B3200 4816 334106 partida izenduna onetsi zuen.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako organismoari dagozkion eginkizunen artean dago euskararen presentzia eta erabilera informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta sare sozialetan sustatzeko proposamenak egin eta Nafarroan garatzeko programak martxan jartzea.

Horiek horrela, egokitzen da Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen artean hitzarmen bat sinatzea, arautzeko sinatzaileek hartutako konpromisoen markoa, Euskal Wikilarien Kultura Elkartea Nafarroako Foru Komunitatearekin zerikusia duen jardura ahalbidetzera bideratua.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak aurkeztutako txostena ikusirik, eta Herriarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuan emandako eskudantziak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. 25.000,00 euroko diru gastua baimentzea, 2020an, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren artean, lankidetzaz hitzarmen bat egiteko.

Gastua hori egingen da 2020ko gastuen aurrekontuko B30002 B3200 4816 334106 " (E) Euskal Wikilarien Kultura Elkartearikiko hitzarmenerako" partidaren kargura.

2. Foru Agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Herriarrekiko Harremanetako Departamentuan Ekonomia eta Ogasun Departamentuak duen kontu-hartzailetzara, aipatutako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Gai Ekonomikoen Bulegora, Euskarabideko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzura eta Programen Bulegora.



3. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2020ko martxoaren 27an

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA

Ana Ollo Hualde



CSV: **9B6B83C5CAAAD12A**

Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / <https://administracionelectronica.navarra.es/validarCSV/default.aspx>

Emitido por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emana (DIR3: A15007522)

Fecha de emisión / Noiz emana: 2020-03-27 10:01:14